Maitane Nerekan replica que BILDU ha hecho propuestas concretas y así se han transmitido al concejal de urbanismo y opina que el PNV debe admitir el fracaso de su política en vivienda y espera que la presión popular hará cambiar ésa política y evitar la venta de terrenos que son de todos los vecinos para destinar ese dinero a incrementar proyectos excesivos.

Luis Almansa jaunak esku-hartzen du Gobernu Taldeak etxebizitzaren gaian talde politikoei proposamen zehatzak egiteko eskatzea ulertzen duela adierazteko; izan ere, ezkerraren ikuspuntutik oso polita da alokairu politika sustatzeaz, etxebizitza hutsak ekiditeaz, gazteentzako etxebizitzak sustatzeaz eta abar hitz egitea. Arazoa orokortasunetik zehaztasunera igarotzea da eta hori da Talde Sozialistak etxebizitza-planean egin zuena eta BILDU taldeari zentzu horretan ahalegin bat egitea eskatuko lioke; eta ez du uste Getxo Antzokian eta Romoko Kultur Etxean inbertitzeak Udalaren etorkizuna hipotekatzen duenik.

Luis Almansa interviene manifestando que comprende lo que dice el Equipo de Gobierno de exigir a los grupos propuestas concretas en materia de vivienda ya que desde un punto de vista de izquieda queda bonito hablar de impulsar políticas de alquiler, evitar viviendas vacias, potenciar viviendas para jóvenes, etc. El problema es pasar de la generalidad a lo concreto y eso es lo que hizo el Grupo Socialista en el plan de vivienda y pediría a BILDU un esfuerzo en ése sentido y no cree que la inversión en el Getxo Antzokia y la Kultur Etxea de Romo estén hipotecando el futuro del Ayuntamiento.

Eduardo Andrade jaunak erantzuten dio eztabaidatzen den gaia Getxo Antzokiari egindako 4,5 milioiko ekarpena dela; gerta daitezkeen egoera ekonomikoek kezkatzen du eta bideragarritasun-plan bat aurkezteari beharrezko deritzo.

Eduardo Andrade replica que el tema del debate es la aportación de 4,5 millones al Getxo Antzokia y que le preocupa las situaciones económicas que se puedan dar y estima necesario presentar un plan de viabilidad.

Luis Almansa jaunak adierazten du PP taldea ez dela inor Talde Sozialistak zeri

Luis Almansa indica al PP que no es nadie

buruz hitz egin behar duen erabakitzeko.

para determinar sobre qué aspectos puede hablar el Grupo Socialista.

Dekretuen berri eman da, eta Ogasuna, Kontuetako, Ekonomia, Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta Osoko Bilkura kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauen jakitun gelditzen da:

Dada cuenta de los Decretos, y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara se eleva al Pleno queda enterado de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante mediante habilitación de crédito:

6082/2013 zenbakidun Dekretua 2.500.000,00 euroko zenbatekoarekin. Getxo Antzokiaren proiektua.

Decreto nº 6082/2013 por un importe de 2.500.000,00 euros. Proyecto Getxo Antzoki.

6084/2013 zenbakidun Dekretua 583.505,60 euroko zenbatekoarekin. Getxo Antzokiaren proiektua.

Decreto nº 6084/2013 por un importe de 583.505,60 euros. Proyecto Getxo Antzoki.

## HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUAK ETA INGURUMENA

## URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

### 9.- ARENEONDO KALEKO 9KO ERAIKINA ORDEZTEKO ERAGINDAKO XEHETASUNEZKO AZTERKETA BEHIN BETIKO ONESTEKO PROPOSAMENA.

### 9.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA SUSTITUCIÓN DEL EDIFICIO Nº 9 DE LA CALLE ARENEONDO.

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egiten da eta EAJ- PNV eta BILDU taldeen aldeko 12 boto eta PP eta PSE-EE taldeen 11 abstentzio-boto lortzen ditu.

Tras darse lectura a la propuesta, es sometida a votación obteniendo 12 votos a favor: PNV, BILDU, 11 abstenciones PP, PSE-EE.

Ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoak honako hau adostu zuen:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente se acordó por mayoría:

LEHENA.-

PRIMERO.-

I.- IGNACIO MACHO MANGAS jaunak EDIFICACIONES BIETAMENDI, SL merkataritza-sozietatearen izenean eta ordezkaritzan aurkeztutako Xehetasun Azterketa, behin betiko izaerarekin, onestea, Areneondo kaleko 9. zenbakian dagoen eraikina ordezteko. Azterketa hori Cañada Merino, Sáiz Fernández eta Merino Mendaza arkitekto jaunek idatzi dute, hasierako onespenean jasotako zehaztasunak kontuan hartuz, bai eta Bizkaiko Garraio Kontsortzioak adierazitakoak ere; bertan adierazten da haren baimena behar dela gaur egun dagoen eraikuntza eraisteko nahiz berria eraikitzeko, proiektatu beharko dena honako hauek kontuan hartuz: babes akustikoa diseinatzeko nahitaezkotasuna trenak sortutako zarata eta dardaren aurka; ainguratzeak debekatzea eraikuntzako hormari eusteko, eta perkusio bidezko edozein indusketa-metodo debekatzea.

II.- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

III.- Interesdunei jakinaraztea egokiak diren errekurtsoak adieraziz.

BIGARRENA.-

Alkatetza Udalburutzari ahalmena ematea erabaki hauek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi beste ebazpen hartzeko.

I.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. IGNACIO MACHO MANGAS, en nombre y representación de la mercantil EDIFICACIONES BIETAMENDI, S.L., para la sustitución del edificio sito en el nº 9 de la calle Areneondo, redactado por los Sres. Arquitectos Cañada Merino, Sáiz Fernández y Merino Mendaza, debiendo tener en cuenta las matizaciones recogidas a la aprobación inicial, así como las apuntadas por el Consorcio de Transportes de Bizkaia, que señala la necesidad de contar con su autorización tanto para la demolición de la edificación existente en la actualidad como para la construcción de la nueva, que habrá de proyectarse teniendo en cuenta la obligatoriedad de diseñar una protección acústica frente a ruidos y vibraciones generados por el ferrocarril, la prohibición de anclajes para la contención del muro del edificio y la prohibición de cualquier método de excavación por percusión.

II.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

III.- Notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

SEGUNDO.-

Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**10.- EAJ UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEARI BURUZKO LEGEAREN**

**10.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL PNV S/ MODIFICACIÓN DE LA LEY DE INTERRUPCIÓN VOLUNTARIA**

**ALDARAZPENA.**

Keltse Eiguren andreak mozioa irakurtzen du. Esku-hartze honek mozio honetarako eta beste talde batzuek aurkeztutako beste mozio batentzako balio duela adierazten du. Aurkeztu den aurreproiektuak gaitzespen handia eragin duela eta udalaz gaindiko gaia izaten jarraitzen duela adierazten du. EAJ-PNV taldeak irizpide uniforme bati eusten dio erakunde guztietan, hala nola, aurreproiektuak beraiek partekatzen ez duten erreforma planteatzen du eta hura erretiratzea eskatzen dute.

Maitane Nerekan andreak adierazten du mozio honetan beren jarrera azaltzen dutela, izan ere, gai-zerrendako beste puntu batean aurkezten duena hiru elkarteri dagokiena da, beraiek hura aurkezteko bide baino ez direlarik. Mozioa baiezko kritiko batekin babestuko dute, ez hainbeste edukiagatik, baizik eta, hiru elkartek talde politiko guztiei eta Berdintasunerako Batzordeari entregatua izanik, EAJ-PNV taldeak gaiari dagokionez adostasun batera iristeko ezer egin ez duelako. Gogoratzen du EAJ-PNV taldeak emakumeari buruzko mozio bat Berdintasunerako Batzordetik pasa gabe Osoko Bilkurari aurkeztu izana kritikatu zuela eta, kasu honetan, berak berdin jokatu duela. Ez du uste EAJ-PNV taldearen abstentzioaren arrazoia barne-koherentzia izan denik, izan ere, zehazten duenaren arabera, udalerri desberdinetan jarrera desberdina hartu dute. Planteatzen den gaia udalaz gaindikoa dela aitortzen du, baita, estatuz gaindikoa ere, gizarte kapitalistaren isla izaten jarraitzen baitu. Mozioan sakoneko funtsatzerik ez egoteak kezkatzen du, zeina, egungo legeak babes handiagoa izatean oinarritzen den, ez da sartzen planteatzen den erreformaren edukiaren alderdi negatiboa adieraztera. Lege hori eta PP sustatzen ari den beste

**DEL EMBARAZO.**

Keltse Eiguren da lectura a la moción. Manifiesta que esta intervención sirve para esta moción y otra presentada por otros grupos. Insiste que el anteproyecto de ley presentado ha suscitado un gran rechazo y que siendo el tema supramunicipal, el PNV mantiene un criterio uniforme en todas las instituciones que es que el anteproyecto plantea una reforma que no comparten y piden su retirada.

Maitane Nerekan indica que en esta moción plantearán su posición ya que la que presentan en otro punto del diá, se corresponde a tres asociaciones de los que ellos sólo hacen de cauce de presentación. Apoyarán la moción con un sí crítico no tanto por el contenido sino porque existiendo una moción que se entrega por tres asociaciones, a todos los grupos políticos y al Consejo de Igualdad el PNV nada ha hecho para llegar a un acuerdo al respecto. Recuerda que el PNV criticó que en una moción sobre el tema de mujer se presentara al Pleno sin pasar por el Consejo de Igualdad y ahora ellos han actuado de esa manera. No cree que es razón para la abstención del PNV la coherencia interna ya que tal y como detalla, en diferentes municipios han adoptado posturas diversas. Reconoce que es supramunicipal, incluso supraestatal la cuestión que se plantea ya que no deja de ser el reflejo de un sociedad capitalista. Le preocupa que no haya una fundamentación de fondo en la moción ya que únicamente se basa en que la ley actual tuvo un mayor apoyo pero no entra a manifestar lo negativo del contenido de la reforma que se plantea y cree que esta ley junto con otras que está dinamizando el PP es un ataque contra las mujeres

hainbat emakumearen aurkako erasoak direla uste du, haiek etxean konfinatuz, haien sexualitatea eta gaitasunak mugatuz; hori emakumeenganako inposizio eta errepresioa dela iruditzen zaio. Politika horien aurrean ahaleginak bateratzea beharrezkoa dela adieraziz amaitzen du.

buscando su confinamiento en casa, determinando su sexualidad y sus capacidades lo que le parece una imposición y una represión a las mujeres. Finaliza manifestando que ante esas políticas es necesario aunar esfuerzos.

Keltse Eiguren andreak aurreproiektua erretiratzea eskatzen du behin eta berriz eta aurrekoari dagokionez, azkeneko Berdintasunerako Batzordean elkarte batek proposamen bat aurkeztu zuela gogorarazten du talde politikoren batek Osoko Bilkurara eraman nahi bazuen ere, baina ez zen Berdintasunerako Batzordearen proposamena eta baziren Osoko Bilkurara aurkeztearen alde zeuden taldeak; aldiz, EAJ-PNV taldeak orain agertu duen jarrera berdina agertu zuen, beraz, ez du uste Berdintasunerako Batzordearekin adei gabea izan denik.

Keltse Eiguren insiste en la solicitud de retirar el anteproyecto y respecto al precedente, recuerda que en el último Consejo de Igualdad una asociación presentó una propuesta por si algún grupo político lo quería presentar la Pleno pero no era una propuesta del Consejo de Igualdad habiendo grupos favorables de presentarla al Pleno, mientras que el PNV manifestó la postura que ahora han manifestado y por lo que entiende que no han sido descorteses con el Consejo de Igualdad.

Maitane Nerekan andreak hiru elkarteren proposamena zela erantzuten dio eta EAJ-PNV taldeak udalerri desberdinetan modu desberdinean jardun duela.

Maitane Nerekan replica que era una propuesta de tres asociaciones y recalca en que el PNV en diferentes municipios ha actuado de manera diversa.

Marisa Arrue andreak bere esku-hartzea arrazoiketak aurkeztutako bi mozioentzako balioko duela adieraziz hasten du. PSOE-ren alderdikeri ideologikoak 2010ean lehen zegoen kontsentsuarekin apurtu zuen abortuaren legea onartzea ekarri zuela adierazten du. PSOE-ren hauteskunde-programan sartzen ez zen legea eta amaren eta nasciturusaren arteko eskubideen orekari buruzko Auzitegi Konstituzionalaren sendotutako doktrina irudikatzen ez zuena. Doktrina horren arabera, eskubide bat ez zaio besteari gailentzen muturreko larritasun-kasuan ez bada. Egoera hori saihesteko, Alderdi Popularra 2014ko hauteskundeetara abortuaren legea aldatzeko promesarekin agertu zen eta

Marisa Arrúe inicia su intervención manifestando que la argumentación va a servir para las dos mociones presentadas. Indica que el sectarismo ideológico del PSOE llevó en 2010 a aprobar una ley del aborto que rompió el consenso existente. Una ley que no figuraba en el programa electoral de PSOE, ni representaba la doctrina consolidada del Tribunal Constitucional sobre el equilibrio de los derechos de la madre y del nasciturus, doctrina que indica que no existe una prevalencia de un derecho sobre otro más que en caso de extrema gravedad. Para evitar esta situación el Partido Popular acudió a las elecciones del 2014 con la promesa electoral de modificar la ley del aborto y este anteproyecto de ley establece

legearen aurreproiektu horrek guraso izango direnen adostasuna ezartzen du adin txikikoen suposturako eta abortua ez dela emakumearen eskubide naturala adierazten du, beste bizitza bat ere jokoan baitago. Bere iritziz, egokiena talde guztiek Kongresuan dituzten ordezkariei egoki iritzitako aldaketak plantea ditzatela adieraztea da han eztabaidatu ahal izateko, hori baita horretarako foro egokia.

el consentimiento de los padres futuros para en supuestos de menores de edad e indica que el aborto no es un derecho natural de la mujer ya que existe también otra vida en juego. Opina que lo que procede es que todos los grupos indiquen a sus representantes en el Congreso que planteen las modificaciones oportunas para su debate, ahí que es el foro adecuado.

Mozioa bozkatzen da eta onartu egiten da EAJ-PNV, BILDU eta PSE-EE taldeen aldeko 14 boto eta PP taldearen aurkako 9 boto lortzean.

Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 14 votos a favor: PNV, BILDU, PSE-EE, 9 votos en contra PP.

Ondorioz, gehiengoak onartutako mozioa:

En consecuencia, por mayoría es aprobada la siguiente moción:

Joseba Arregi Martinez, Getxoko EAJ-PNV Udal taldearen bozeramaileak honako mozioa aurkezten du 2014ko urtarrilaren 28an izango den Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin,

Joseba Arregi Martínez, portavoz del grupo municipal de EAJ-PNV de Getxo presenta la siguiente moción para que sea debatida en el Pleno del día 28 de enero de 2014,

2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa, duela lau urte onartu zen adostasun sozial eta politiko zabalarekin .

La Ley Orgánica 2/2010, de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción del embarazo fue aprobada hace apenas cuatro años con gran consenso social y político.

Une honetan, Mariano Rajoyren gobernuak Lege Organikoaren aurreproiektua aurkeztu du,zeinen bidez Estatuan sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez etetearen inguruan indarrean dagoen legeria aldarazi nahi duen, aldarazpen horrek arbuioa Alderdi Popularraren alderdi barruan ere jaso duelarik .

Actualmente, el gobierno de Mariano Rajoy ha presentado un anteproyecto de Ley Orgánica por el que se pretende revisar la legislación vigente en el Estado sobre salud sexual y reproductiva e interrupción voluntaria del embarazo que ha generado rechazo incluso en las filas del propio Partido Popular.

Egin nahi den aldarazpena gizartearen zein alderdi politikoen gehiengoaren irizpideen kontrakoa da .

La modificación que se pretende es contraria al sentir mayoritario tanto de la sociedad como de los distintos partidos políticos.

2/2010 Lege Organikoak lortu zuen

Habida cuenta del amplio consenso que

adostasun zabala kontuan hartuta eta PPk une honetan Madrilen tramitatzen ari den Lege Aurreproiektuak jaso duen arbuioaren aurrean, EAJ-PNVren udal talde honek udal batzan eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten du honako MOZIOA:

- Getxoko Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio Estatuko Gobernuak 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa aldarazteko Lege Organikoaren Aurreproiektua erretiratzea .

Agustin Ruiz jaunak esku hartzen du Talde Sozialistak mozioari ematen dion babesa kritikoa dela eta hurrengo mozioan beren jarrera azalduko dutela adierazteko.

obtuvo la Ley Orgánica 2/2010 y del amplio rechazo que está generando el Anteproyecto de Ley que está tramitando el PP en Madrid, es por lo que el grupo municipal EAJ-PNV presenta para su debate y aprobación en el pleno municipal la siguiente MOCIÓN:

- El Ayuntamiento de Getxo solicita al Gobierno del Estado que retire el Anteproyecto de Ley Orgánica por el que el gobierno pretende revisar la Ley 2/2010, de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción del embarazo.

Agustín Ruiz interviene para indicar que el apoyo a la moción por parte del Grupo Socialista es crítico y que en la siguiente moción explicarán su posición.

## 11.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: FADURAKO ZUBIA BEHINGOZ KONPONTZEKO.

Jesus Toca jaunak mozioa irakurtzen du.

Luis Almansa jaunak esku hartzen du proposamena ez dela bideragarria adieraziz, hura egikaritzeko bete behar diren legezko epeengatik. Gai hori 2012an eztabaidatu zela gogoratzen du PP taldearen mozio batetik abiatuz eta EAJ-PNV taldearen transakzio batekin aho batez onartu zela. Hortik aurrera, Eusko Legebiltzarrean PP taldearen proposamen bat aurkeztu zen, EAJ-PNV taldearen eta PSE-EE taldearen babesa lortu zuena. Epeak luzatu egin direla adierazten du eta, orain, URAk urtarrilaren 31n haren administrazio-izapidetzerako proiektua eskura edukiko duela adierazten du, aurten egingo dena; obrei, berriz, 2015ean

## 11.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ REFORMA INMEDIATA DEL PUENTE DE FADURA.

Jesús Toca da lectura a la moción.

Luis Almansa interviene manifestando que la propuesta es inviable por los plazos legales que hay que cumplir para su ejecución. Recuerda que ese tema se debatió en el año 2012 a partir de una moción del PP y que con una transacción del PNV se aprobó por unanimidad. A partir de ahí, en el Parlamento Vaso se presentó una propuesta del PP que recogió el apoyo del PNV y del PSE-EE . Manifiesta que los los plazos se han alargado y ahora se indica que URA el 31 de enero dispondrá del proyecto para su tramitación administrativa que se realizará este año y se podrán comenzar las obras a principios del 2015. Opina que el retraso es

ekin ahal izango zaie. Atzerapenaren erantzule bakarra Eusko Jaurlaritza dela deritzo, nahiz eta Gobernu Taldea ere bustitzen duen EAJ-PNV alderdikoa izateagatik. Mozioa oportunista irudituagatik, aldeko botoa emango dutela adieraziz amaitzen du.

única responsabilidad del Gobierno Vasco aunque tambíen salpique al Equipo de Gobierno por ser del PNV. Finaliza manifestando que aunque la moción les parece oportunista, votarán a favor de la misma.

Arantza Gutierrez andreak, BILDU taldearen izenean, esku hartzen du mozioa oportunista dela eta tokiz kanpo dagoela adierazteko, eztabaida Uholdeen Batzordean hasia delako eta pasa den urtarrilaren 15ean prentsaurrekoan gaia aurkeztu ez zelako. Gai horretan, gauza guztietan berandu dihardutela uste du eta, horregatik, mozioaren aldeko botoa emango dute, nahiz eta argazki bat baino ez dela uste duten. Gai honen inguruan dagoen adostasuna hausten ari da hainbat taldek elektoralismoagatik beren jarduteko modua aldatzen ari baitira. BILDU-ren ustez, proiektua bere osotasunean osatu behar da eta ez dira jarduera partzialak soilik gauzatu behar.

Arantza Gutiérrez en nombre de BILDU interviene para indicar que la moción es oportunista y está fuera de lugar ya que el debate empieza a producirse en la Comisión de Inundaciones y no haberse presentado la cuestión en una rueda de prensa el pasado 15 de enero. Opina que en esta cuestión se está actuando tarde en todo y por ello, votarán a favor de la moción aunque creen que solamente es una foto. El consenso que existe en este tema se está rompiendo porque algunos grupos por electoralismo están cambiando su forma de actuar. BILDU cree que hay que completar el proyecto en su totalidad y no únicamente realizar actuaciones parciales.

Jesus Toca jaunak adierazten du Uholdeen Batzordea ez duela PP taldeak deitzen, baizik eta, alkateak deitzen duela eta mozioa aurkeztea oportunismoa bada, BILDU taldeak Osoko Bilkura honen aurrean aurkeztutakoa ere hala izango dela adierazten du. Gai hauek Osoko Bilkuran aurkezten badituzte, udal-talde guztiak eta auzotarrak daudelako dela dio. Ados daude gaia atzeratzen ari dela baieztapenarekin eta 2011ko azaroaren 17an El Correo egunkariak auzotarren eskari bat argitaratu zuela gogoratzen du; 2011ko abenduan, Eusko Jaurlaritzak Fadurako zubia eraisteko proiektuan lanean zihardutela adierazi zuen. 2012ko otsailean, obra hori egiteko 300.000€ zituztela erabilgarri adierazi zen eta 2012ko martxoan beste jardueren gain zubia aldatzearena nagusitu zen. Orain izan da, ordea, Gobernu Taldeak, alkatea

Jesús Toca manifieta que el PP no convoca la Comisión de Inundaciones sino el Alcade y si es oportunismo presentar una moción también será la presentada por BILDU en este mismo Pleno. Recuerda que presentan estas cuestiones al Pleno porque es el único foro dónde están presentes todos los grupos municipales y los vecinos. Manifiesta su conformidad en que se está retrasando este tema y recuerda que el 17 de noviembre del 2011 El Correo publicó una demanda vecinal, en diciembre de 2011 el Gobierno Vasco indicaba que ya se estaba trabajando en el proyecto del derribo del puente de Fadura. En febrero del 2012 se informó que disponían de 300.000€ para esa obra y en marzo del 2012 prevaleció la sustitución del puente frente a otras actuaciones. Ha sido ahora, cuando el Equipo de Gobierno encabezado por el Alcalde presenta junto

buru duela eta URArekin batera, proiektu bat aurkeztu duen unea; proiektu hori 2014an izapidetuko da eta 2015ean hasiko da. Eta bere aurreko adierazpenen aurka egiten du, non, PP taldeari gai horiek Uholdeen batzordean aurkeztea eskatzen zitzaion eta berari dagokio hura deitzea.

con URA un proyecto que se va a tramitar en 2014 e inicar en 2015. Y lo hace en contra de sus manifestaciones anteriores en las que pedía al PP que estas cuestiones se presentaran en la Comisión de Inundaciones que a él le corresponde convocar.

Arantza Gutierrez andreak adierazten du BILDU ados dagoela proiektua Uholdeen Batzordean aurkeztearekin eta jarduera-ildo hori EAJ-PNV taldeak hautsi duela. PP taldearen arintasun-eskaerak harritzen du, beste zenbait unetan adostasuna zuten jarduerak eragotzi baititu, esate baterako, Errekaganeko kasuan. Mozioari beren babesa emango diote, proiektu osoa gauzatzearekin ados baitaude.

Arantza Gutiérrez manifiesta que BILDU está de acuerdo en que se plantee el proyecto en la Comisión de Inundaciones y que esa línea de actuaciones las ha roto el PNV. Le sorprende la petición de rapidez del PP cuando en otros momentos han entorpecido actuaciones que contaban con consenso como es el caso de Errekagane. Apoyaran la moción porque están de acurdo con la ejecución del proyecto completo.

Luis Almansa jaunak adierazten du Talde Sozialistak oposizioaren mozioen aurrean bere jarrera aldatu egingo duela, oposizioaren artean eztabaidatzea ez baita bidezkoa, aitzitik bai Gobernu Taldea kritikatzean oinarritzea. EAJ-PNV taldea arinegi ibili dela deritzo eta Uholdeen Batzordean lantzen ari ziren adostasuna hautsi da; horrek ez zion Uholdeen Batzordean aurkeztu beharreko informazioaren aurrean informazio publikoari lehentasunik ematen.

Luis Almansa manifiesta que el Grupo Socialista va a cambiar de actitud ante mociones de la oposición ya que no procede discutir entre la oposición sino centrarse en la crítica al Equipo de Gobierno. Cree que el PNV se ha precipitado y ha roto el consenso con el que se venía trabajando en la Comisión de Inundaciones, que no priorizaba la información pública respecto a la información a presentar en la Comisión de Inundaciones.

Mozioa bozkatzen da eta onartu egiten da PP, BILDU eta PSE-EE taldeen aldeko 14 boto eta EAJ-PNV taldearen 9 abstentzio-boto lortzean.

Sometida la moción a votación, es aprobada al obtener 14 votos a favor: PP, BILDU, PSE-EE, 9 abstenicones PNV.

Ondorioz, gehiengoz, honako mozio hau onartzen da:

En consecuencia, por mayoría es aprobada la siguiente moción:

2008ko ekainaren 1ean eta 8an udalerrian izan ziren uholdeen ondorioz, Gobela ibaiaren gainezka egiteko arriskuagatik Getxo udalerriak sufritzen zuen arazoa konpontzeko inplikatutako eta interesatutako eragile guztien lan tekniko

Las inundaciones acaecidas en el municipio de Getxo el 1 y el 8 de Junio de 2008, dieron lugar a una ardua labor técnica y política desarrollada por todos los agentes implicados e interesados en solucionar el riesgo que sufría el

eta politiko garrantzitsua garatu zen.

Uholdeak prebenitzeko eta Gobela ibaia saneatzeko obrak egin diren arren, arriskuak hor jarraitzen du, beraz, ezinbestekoa da Uraren Euskal Agentziak (URA) lehenbailehen esku hartzea eta beharrezko obrak egitea, Fadura eta Larrañazubiko zonan.

2013an erregistratutako azkeneko euriak metro koadroko 22 litrora bakarrik iritsi ziren eta zona hori alerta laranjan egon zen; horrek, jakina, zonako eta udalerriko bizilagunak asaldatu zituen eta lehenago bizi izandako egoera larriak berriro bizi izateko beldurra zabaldu zen.

Getxoko herritarrek ezin dute 2015. urtera arte itxaron Fadurako zonari dagozkion IV. Faseko beharrezko obra horiek hasteko.

Horregatik, honako ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten diogu Osoko Bilkurari:

LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak zera eskatzen dio Eusko Jaurlaritza; Uraren Euskal Agentziaren (URA) bitartez, egin ditzala 2014. urtean Fadura eta Larrañazubiko proiektuaren obrak, zona guzti horretan uholde-arriskua saihesteko.

BIGARRENA.- Udalaren komunikabideetan mozio honen berri ematea.

Joseba Arregi jaunak EAJ-PNV taldearen abstentzio-botoa azaltzen du, izan ere, proposamenak Ingurumen eta Kontratazio Publikoaren alorrean finkatutako legezko prozedurak alboratu egiten ditu eta obra gauzatzeko data edukitzea albiste bikaina

municipio de Getxo de inundación del río Gobela.

Si bien es verdad que se han acometido obras de prevención de inundaciones y saneamiento del río Gobela, el riesgo sigue existiendo, por lo que se hace imprescindible que la Agencia Vasca del Agua (URA), actúe cuanto antes y aborde las obras necesarias en la zona de Fadura y Larrañazubi.

Las ultimas lluvias registradas en el 2013, que sólo alcanzaron los 22 l/m², hicieron que la zona estuviera en alerta naranja, con la consiguiente alarma de los vecinos de la zona y del municipio que temieron volver a vivir situaciones de extrema gravedad.

Los vecinos de Getxo no pueden esperar al 2015 para que se inicien unas obras tan necesarias como son estas de la IV Fase en la zona de Fadura.

Es por lo que presentamos la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO al Pleno Municipal:

PRIMERO.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco para que, a través de la Agencia Vasca del Agua (URA), ejecute en el año 2014, las obras del proyecto de Fadura y Larrañazubi, para evitar el riesgo de inundaciones en toda esta zona.

SEGUNDO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Joseba Arregi explica el voto de abstención del PNV ya que la propuesta prescinde de los procedimientos legales establecidos, en la normativa vigente en materia de Medio Ambiente y de Contratación Pública y que se niegan a convertir una excelente noticia

izanik ez dute parte hartu nahi hura albiste txar bihurtzen, PP taldea saiatzen ari den gisan.

como la de tener fecha para la ejecuión de la obra en una mala noticia como pretende el PP.

**12.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: AREETAKO GELTOKIA PLAZA BEHINGOZ BERRIZTATZEKO.**

**12.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ RENOVACIÓN INMEDIATA DE LA PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS.**

Marisa Arrue andreak mozioa irakurtzen du, hots, honela dio:

Marisa Arrúe da lectura a la moción que indica lo siguiente:

2010eko abenduan, Getxoko Alkateak honakoa hitzeman zuen atari guztietan jarritako udal bandoaren bitartez: "*Geltoki Plazan 800.000 euroko inbertsioa, 2010 eta 2013 artean gastatzeko*". 2013. urtea dagoeneko amaitu da eta euro bakar bat ere ez da gastatu lau urteotan.

En diciembre del 2010, el Alcalde de Getxo prometió en un bando municipal que pegó en todos los portales: "*Una inversión en la Plaza de la Estación de 800.000€ a gastar desde 2010 a 2013*". Ha terminado el año 2013 y no se ha gastado ni un solo euro en estos 4 años.

Eguraldi txarragatik eta Plazaren egoera orokor txarragatik (*bizilagunek salatzen duten bezala,* dagoeneko baldosak ere ez dituzte konpontzen), Getxolandia itxi egin behar izan da aurtengo Gabonetan; azkeneko arazo horiek erdiguneko plaza hori eraberritzeko gure aldarrikapena berresten dute.

Los últimos problemas surgidos estas Navidades, cuando Getxolandia ha tenido que cerrar sus puertas debido a las inclemencias del tiempo y el deterioro general de la Plaza a la que ya ni siquiera arreglan las baldosas, *tal y como denuncian los vecinos*, reafirman nuestra reivindicación de reformar esta céntrica plaza.

Gogorarazi behar da urtean ia sei hilabetez okupatzen duela plaza bertan jartzen den karpak eta urtero milioi bat euroko kostua daukala (*kostu horri gastu gehigarri guztiak gehitu behar zaizkio, hala nola, argindarra, soinua, segurtasuna, komunak, eserlekuak, eszenatokia, etab.).*

Tenemos que recordar que la instalación de la carpa ocupa la plaza durante casi seis meses al año y tiene unos costes de un millón de euros anuales, *(sumándole todos los gastos adicionales como electricidad, sonido, seguridad, aseos, asientos, escenario, etc.)*

Baina karpa kentzen denean geratzen dena ia okerragoa da, hormigoizko plaza hotz bat, batere atsegina ez dena.

Pero cuando se retira la carpa lo que queda es casi peor, una plaza de hormigón, fría y nada acogedora.

Horrela, Udaleko Talde Popularrekook, plaza honi zerbitzu publiko bat emateko

De esta forma, desde el Grupo Municipal Popular recogemos otra de las peticiones

eta herritar guztiek erabili ahal izan dezaten Udalak eraberritu dezala behin eta berriz eskatzen ari diren Erromo eta Areetako bizilagunen beste eskaeratako bat jaso dugu.

de los vecinos de Romo y Las Arenas que, reiteradamente están solicitando la renovación de esta plaza para darle un servicio público, y que pueda ser usado por todos los vecinos.

Gure iritziz, herritarrok ezin dugu gehiago itxaron, horregatik, plaza birmoldatzeko proiektu bat aurkezten dugu, plaza berde eta atsegin baterako proiektua, guztiok goza dezagun.

Desde el Grupo Municipal Popular, pensamos que los vecinos no podemos esperar más, y por eso presentamos un proyecto de remodelación de la plaza, una plaza verde, amable para disfrute de todos.

Gure proiektuak espazioaren erdia baino gehiago (4.704 m2) berdegunez osatuko den Plaza bat jasotzen du, ondorengo elementu garrantzitsuekin:

Nuestro proyecto consiste en una Plaza con más de la mitad de zonas verdes 4.704m$^2$. y tiene los siguientes elementos importantes:

Plazaren azalera osoa 7.279 m$^2$
Erdiko azalera 2.575m$^2$

Superficie total de la Plaza 7.279 m$^2$
Superficie central 2.575m$^2$

- Urmaela, landare eta arrainekin.
- Pergola bat, hainbat jarduera egin ahal izateko: dantzaldiak, ekitaldi txikiak, etab..
- Haur-jolasetarako zona bat.
- Estaldura berdea (PUPPY-ren antzerakoa), Xake Etxearen fatxadan.
- Beharrezkotzat jotzen ditugun komun publikoak.
- Lurrazpiko aparkalekua, gaur egungo Sarajevokoa ordeztuko duena, espazio hori herritarren erabilerarako berreskuratuz..
- Udaltzaingoaren auzoko komisaria jartzeko udal eraikin txiki bat, auzoari zerbitzua eskaintzeko eta delinkuentzia-tasak jaisteko.

- Con un estanque con plantas y peces.
- Una pérgola para poder hacer actividades como: bailables, pequeños eventos, etc.
- Una zona de juegos infantiles.
- Un revestimiento verde (estilo PUPPY) en la fachada de la Casa del Ajedrez.
- Unos necesarios urinarios públicos.
- Un aparcamiento subterráneo que sustituya el actual de Sarajevo y recupere ese espacio para disfrute vecinal.
- Un pequeño edificio municipal que pueda albergar una comisaría de barrio de la Policía Local que pueda dar servicio al barrio y disminuir las tasas de delincuencia.

Udaleko Talde Popularrekook uste dugu EAJk eta Landa Alkate Jaunak inoiz ez dutela Plaza honen arazoa konpontzeko

Desde el Grupo Municipal Popular pensamos que el PNV y este Alcalde Sr. Landa, nunca ha tenido intención de

asmorik izan.

solucionar la problemática de esta Plaza.

Nahikoa da, nahikoa itxaron dugu eta berriro diogu plaza hau eraberritu beharra dagoela, herritar guztiek erabil dezaten berdegune bilakatzeko eta, horrela, behingoz, ditxosozko karpa kentzeko.

Ya está bien de esperar, insistimos en la inmediata reforma de esta plaza para convertirla en una zona verde para uso de todos los vecinos y eliminar así, de una vez por todas, la dichosa carpa.

Horregatik, Udaleko Talde Popularrak gainerako indar politikoen babesa eskatzen dugu, Areetako Geltoki Plaza eraberritzeko proiektua legealdia amaitu aurretik egikaritu dadila exijitzeko.

Es por lo que desde el Grupo Municipal Popular solicitamos el apoyo de las demás fuerzas políticas para exigir que la ejecución del proyecto de reforma de la Plaza de la Estación de Las Arenas, se efectúe antes de terminar la presente legislatura.

Guzti horregatik, Udaleko Talde Popularrak honako ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten du:

Por toda ello el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak zera eskatzen dio Alkateari: Alderdi Popularrak Areetako Geltoki Plaza eraberritzeko proiektua egikaritzen has dadila.

PRIMERO.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Alcalde a iniciar la ejecución del proyecto de reforma de la Plaza de la Estación de Las Arenas presentado por el Partido Popular.

BIGARRENA.- Udalaren komunikabideetan mozio honen berri ematea.

SEGUNDO.- Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Luis Almansa jaunak emendakin transakzionala aurkezten du; honela dio:

Luis Almansa presenta una enmienda transaccional que indica lo siguiente:

Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak alkatea presatzen du Areetako Geltoki Plaza zaharberritzeko ideien lehiaketa garatzeari berrekin diezaion eta pleguan jasota dagoen moduan, denborarik galdu gabe, “Adituen Epaimahaia” deitua eratu dezan. Horrek lehiaketara aurkeztutako 28 diseinuetatik bost proposatuko lituzke, ondoren, udalerri osoa barne hartuko duen herritarren parte-hartze prozesura menpekotzeko.

El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al alcalde a retomar el desarrollo del concurso de ideas para la reforma de la plaza de la Estación de Las Arenas, constituyéndose, como así está recogido en el pliego, sin demora, el denominado “Tribunal de Expertos”, que propondrían cinco de los 28 diseños presentados al concurso, para a continuación someterlos a un proceso de participación ciudadana que abarque a todo el municipio.

Emendakina Alderdi Popularraren

Justifica la misma en que no les parece

proiektua egikaritu beharra arrazoizkoa iruditzen ez zaielako aurkezten dute, jakin bai baitakite udalerriko gune neuralgiko bat dela eta puntu beltz bilakatu dela; beraz, arrazoizkoa iruditzen zaio jada hasita dagoen ideien lehiaketarekin jarraitzea. Emendakina onartzen ez bada mozioaren aurka bozkatuko dutela eta otsailean Osoko Bilkurara eramango dutela adierazten du.

razonable en tener que ejecutar el proyecto del Partido Popular siendo conscientes que se trata de un centro neurálgico del municipio y que se ha convertido en un punto negro, por lo que le parece razonable continuar con el concurso de ideas que está ya iniciado. Manifiesta que si no se acepta la enmienda votarán en contra y que llevarán la misma como moción al Pleno de febrero.

Marisa Arrue andreak adierazten du ez dutela transakzionala onartzen, ez baitaude ados onetsi zen baldintzen pleguarekin eta, bestetik, aurkeztutako ideiak ere ez dituztelako ezagutzen.

Marisa Arrúe manifiesta que no admiten la transaccional porque no están de acuerdo con el pliego de condiciones que se aprobó y tampoco conoce los proyectos de ideas presentadas.

Maitane Nerekan andreak beste emendakin transakzional bat aurkezten du; honela dio:

Maitane Nerekan presenta otra enmienda transaccional que indica lo siguiente:

1. Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak zera eskatzen dio Alkateari: Areetako Geltoki Plaza eraberritzeko proiektua egikaritzen has dadila.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo solicita al Alcalde lo siguiente: que empiecen a ejecutar el proyecto de reforma de la plaza de la Estación de Las Arenas.

2. Areetako Geltoki Plazako eraberritze proiektua bertako auzokide, auzo elkarteen, merkatarien eta ostalariekin adostu eta gero ekar dadila Osoko Bilkurara, berretsi dadin.

2. Que el proyecto de reforma de la plaza de la Estación de Las Arenas se consensue con los vecinos, asociaciones de vecinos, comerciantes y hosteleros y después se traslade al Pleno para su ratificación.

Beren ustez, mozioak talde politiko baten soluzioa inposatzen du auzotarren, gizarteko taldeen eta abarren iritzia kontuan hartu gabe. BILDU taldeak auzotarrekin eta gizarte-talde eta –eragileekin adostutako proiektua soilik onartuko du.

Indica que la moción les parece que impone una solución de un grupo político sin tener en cuenta la opinión de los vecinos, de grupos sociales, etc. BILDU solo admitiría un proyecto consensuado con vecinos, grupos y agentes sociales.

Marisa Arrue andreak adierazten du PP-ren proiektua auzotarrei azaldu zitzaiela eta haien adostasuna lortu zuela eta aurreko legegintzaldian Hirigintza-Batzordean ere azaldu zela. PP taldeak bere proiektua gaur planteatzen du

Marisa Arrúe manifiesta que el proyecto del PP ha sido expuyesto y consensuado con los vecinos y se expuso en la Comisión de Urbanismo en la anterior legislatura. El PP plantea hoy su proyecto porque no hay ningún otro y está dispuesto a exponer el

besterik ez dagoelako eta prest dago auzotarrek beren iritzia eman dezaten proiektu hori azaltzeko. Emendakinak ustez antzeko zerbait planteatzen duenez, ez dute onartuko.

mismo para que opinen los vecinos. Como cree que la enmienda plantea algo similar, no la van a aceptar.

Joseba Arregi jaunak gogorarazten du egungo plaza ere lehiaketaren objektu izan zela eta Udalean gehiengoaren babesa lortu zuela. Talde Sozialistak adierazi duen gisan, egungo prozedura bide bat da eta Osoko Bilkuran adostasun handiagoa lortu duen besterik ez dagoen bitartean, hura aldatzea ez zaio arrazoizkoa iruditzen. Talde Popularrak proposatu duena ez dela proiektu bat adierazten du, baizik eta, paper bat dela; Adituen Batzordean prozedurari berrekingo dietela adierazten du, hor ere kontuan hartzen baita herritarren parte-hartzea, eta BILDU taldea gonbidatzen du egoki iritzitako ekarpenak egitera, baina jada eginda dagoena onartuz.

Joseba Arregi recuerda que la plaza actual fue también objeto de un concurso y que recabó apoyo mayoritario en el Ayuntamiento. Que el procedimiento acual es un camino, tal y como ha indicado el Grupo Socialista y en tanto no haya otro con mayor acuerdo plenario no estima razonable variarlo. Manifiesta que lo que ha propuesto el Grupo Popular no es un proyecto, es un papel e indica que retomaran el proceso en la Comisión de Expertos que tiene también en cuenta la participación ciudadana y anima a BILDU que se incorpore con las aportacione que estime oportunas pero, asumiendo lo que se ha realizado.

Marisa Arrue andreak erantzuten dio betetzen ez duena Gobernu Taldea dela izan ere, 2011n, bando bat atera zuen proiekturako diziplinarteko batzorde bat egingo zuela eta horretarako 800.000 € zeudela iragarriz eta ez dute ezer egin obra hori 2012 eta 2013 artean egingo zela adierazi bazuen ere. Alabaina, ñabardura bat egiten du, iragarpen hori udal-hauteskundeak ospatu baino zerbait lehenago egin zela adierazten baitu. Gobernu Taldeari agintzen duena betetzeko eskatzen dio eta plaza horretan jarduteko jada narrioak ere ez baitira konpontzen. Gobernu Taldeak ezer aurkeztu ez izana kritikatzen du PP-k proiektua aurkeztu duen bitartean, zeina, aldaketei irekia dagoen, baina jarduteko eskatzen du.

Marisa Arrúe replica que el que incumple es el Equipo de Gobierno ya que en el año 2011 anunció en un bando que iba a realizar una comisión interdisciplinar para el proyecto y existian 800.000€ para ello y nada se ha hecho pese a que se indicó que la obra se iba a ejecutar entre el año 2012 y 2013, aunque matiza que el anuncio se hizo justo antes de las elecciones municipales. Pide al Equipo de Gobierno que lo que prometa lo cumpla y pide que se actue sobre esa plaza en la que ahora ni se arreglan los desperfectos. Critica que el Equipo de Gobierno nada haya presentado mientras que el PP ha presentado un proyecto que estás abiertos a modificarlo pero pide que se actúe.

Maitane Nerekan andreak adierazten du gaurko Osoko Bilkuran ez dutela inolako proiekturik onartu, aurrekoan guztiek ezin

Maitane Nerekan indica que en el actual Pleno no han aceptado ningún proyecto ya que en el anterior no todos pudieron

izan baitzuten parte hartu. Gauza nabaria da Geltoki plaza EAJ-PNV taldearentzako ez dela lehentasunezkoa eta sentsazio hori herritar guztiek partekatzen dute. PP taldea berriro ere herritarrekin jolasean ari dela deritze, asko baitira proiektuaren erabakian parte hartu ez duten auzotarrak. Bere ustez, talde bat osatu beharko litzateke elkarteekin, ostalariekin, merkatariekin, auzotarrekin, talde politikoekin eta abarrekin pleguak eta etorkizuneko proiektua neurtzeko; transakzioa onartzen ez bada PP taldearen mozioaren aurka bozkatuko dute.

participar. Es obvio que la plaza de la estación no es algo prioritario para el PNV lo cual es una sensación que comparten los ciudadanos. Creen que el PP vuelve a jugar con los ciudadanos ya que existen muchos vecinos y vecinas que no han participado en la decisión del proyecto. Opina que debe crearse un grupo en el que se integren las asociaciones, los hosteleros, comerciantes, vecinos, grupos políticos, etc para conmensuar los pliegos y el futuro proyecto y si no se admite la transacción no votarán a favor de la moción del PP.

Luis Almansa jaunak gogorarazten du oraindik amaitu ez den administrazio-prozedura bat dagoela eta egin behar dena prozedura hori amaitzea dela edota baliorik gabe uztea. Talde Sozialistak prozesuarekin aurrera jarraitzea planteatu du adituen batzorde bat eratuz. Prozesu hau guztia inguruko hiru auzokideen elkartek eta Talde Sozialistak babestutako 80 etxebizitza eraikitzearen aurka Administrazioarekiko Auzo Errekurtsoa aurkeztean hasi zela gogorarazten du, ez baitzituzten Gobela Ibaiarekiko distantziak betetzen. Errekurtsoa irabazi ondoren Udalak hausnarketa bat egin zuen eta plazaren eta bere inguruaren berrantolamendu berriari bide eman zion. Adituen Epaimahaia eratu behar dela deritzo hark bost diseinu aukeratu ditzan eta horien gain herritarren parte-hartze prozesu bat gauzatu dadin.

Luis Almansa recuerda que hay un procedimiento administrativo que no ha concluido y lo que procede es concluir dicho procedimiento o dejarlo sin efecto. El Grupo Socialista ha planteado seguir para adelante con el proceso creando la comisión de expertos. Recuerda que todo este proceso se inicia cuando tres comunidades de vecinos de la zona y el Grupo Socialista presentaron un recurso contencioso administrativo contra la edificación de 80 viviendas protegidas por no cumplir las distancias al rio Gobela y tras ganar el recurso se produjo una reflexión municipal que llevó a una nueva reordenación de la plaza y su entorno. Estima que procede conformar el Tribunal de Expertos para que elijan cinco diseños sobre los que se realice un procedimiento de participación ciudadana.

Joseba Arregi jaunak gogorarazten du egungo plaza egin zenean, prozeduran ideien lehiaketa egin zela; orduan, PP taldea ere han egon zen eta haren hautaketan parte hartu zuen. Ibilbide berri honetan, Gobernu Taldeak Talde Sozialistaren babesa du eta adostasunari begira egin nahi du aurrera babes gehiago lortu ahal izateko. PP-ren proiektua beraiena baino ez dela gogorarazi nahi du

Joseba Arregi recuerda que la actual plaza proviene de un proceso en el que hubo un concurso de ideas en la cual estuvo también el Partido Popular que participo en la elección del mismo. En esta nueva andadura, el Equipo de Gobierno cuenta con el apoyo del Grupo Socialista de avanzar en clave de consenso con la posibilidad de recabar mas apoyos y recuerda que el proyecto del PP es sólo de

eta gainerako taldeek ez dutela onartzen.

ellos y que está rechazado por el resto de los grupos.

Luis Almansa jaunak adierazten du egungo plazari bide eman zion lehenengo ideien lehiaketa arkitekto batek irabazi zuela baina proiektua Idom-ek egikaritu zuela, jatorrizko ideia nabarmen aldatuz.

Luis Almansa manifiesta que el primer concurso de ideas que dio lugar a la actual plaza lo gano un arquitecto pero que el proyecto lo ejecutó Idom que alteró sustancialmente la idea original.

Marisa Arrue andreak adierazten du proiektua Idom-ek gauzatu zuela eta ez zuela Alderdi Popularraren onarpenik eduki. Gobernu Taldea kritikatzen du Alderdi Popularraren proiektua begiratu ere egin ez duelako eta akordioa bilatu ez dutelako. EAJ-PNV taldeak auzotarrek nahi ez duten plegua inposatu zuela deritzo, etxebizitzei erantsitako eraikina jasotzen du eta auzotarrek onartzen ez duten pergola bat aurreikusten du. Gobernu Taldeak beti auzotarren aurka bere erabakiak inposatzen dituela azpimarratzen du.

Marisa Arrúe manifiesta que el proyecto lo realizó Idom y no contó con la aprobación del Partido Popular. Critica que el Equipo de Gobierno no se ha dignado a mirar el proyecto del Partido Popular y no han buscado el acuerdo. Opina que el PNV impuso un pliego que los vecinos no quieren y que recoge un edificio pegado a las viviendas y que contempla una pergola rechada por los vecinos. Insiste en que el Equipo de Gobierno siempre impone sus decisiones en contra de los vecinos.

Maitane Nerekan andreak adierazten du egungo pleguekiko adostasunik ez dagoenez, talde politiko guztiek, elkarteek, kultur taldeek ostalariek, merkatariek eta abarrek osatutako lan-taldea egitea planteatzen dutela plegu batzuk adosteko eta dauden 800.000€ erabiltzeko xedearekin. Horrela, berehala has daitezke lanean.

Maitane Nerekan manifiesta que ante la falta de consenso con los pliegos actuales plantean la realización de un grupo de trabajo integrado por todos los grupos políticos, asociaciones, grupos culturales, hosteleros, comerciantes, etc para consensar unos pliegos y utilizar los 800.000€ existentes y en este línea se puede empezar a trabajar de forma inmediata.

Mozioa bozkatu egiten da eta ez da onartzen PP taldearen aldeko 9 boto eta EAJ-PNV, BILDU eta PSE-EE taldeen aurkako 14 boto lortzean.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 9 votos a favor: PP, 14 votos en contra: PNV, BILDU, PSE-EE.

**13.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ERREKAGANEKO PABILOIAK ERAISTEKO.**

**13.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ DERRIBO DE LOS PABELLONES DE ERREKAGANE.**

Iñaki Gamero jaunak mozioa irakurtzen

Iñaki Gamero da lectura a la moción que

| | |
|---|---|
| du; honela dio: | indica lo siguiente: |
| Egunez egun eta, Errekaganeko faseari dagozkion beharrezko obrak aurrera doazen heinean, Errekaganeko pabilioiak mantentzeko erabakia akatsa izan zela egiazta daiteke. | Cada día que pasa y avanzan las necesarias obras de la fase de Errekagane, se puede comprobar el error cometido de mantener los pabellones de Errekagane. |
| Aipatutako pabilioiak mantentzeak Arenas Club pasealekua eraistea ekarri zuen eta hori eraberritzeak, berriz, 500.000 euro xahutzea eta obrek iraun zuten denbora guztian zehar pasealekua erabili ezina. | El mantenimiento de los citados pabellones supuso la destrucción del paseo Arenas Club, el despilfarro de los 500.000€ que supuso su renovación y la privación de su uso durante todo el tiempo que duren las obras. |
| Pabilioiak ez ziren mantendu behar; horixe adierazi dute inguruko bizilagunek, eta mantendu ez ezik, berriro irekitzeko asmoa dagoela ikusi dutenean, sinadurak batzeari ekin diote. | Nunca se debieron mantener estos pabellones, y así lo han manifestado los vecinos del entorno que han procedido a la recogida de firmas al descubrir que no sólo se mantuvieron, sino que la intención es la de volver a reabrirlos. |
| Errekaganeko bizilagunak plataforma batean elkartu dira, Errekaganeko zona horretan ibaia erabat estaltzea eskatzeko; eta ohikoa den bezala, Alkateak ez dauka haiei entzuteko batere asmorik. | Los vecinos de Errekagane se han unido en una plataforma que exige la cobertura total del río en esa zona de Errekagane, a la que como es habitual, el Alcalde no tiene intención alguna de escuchar. |
| Orain, Errekaganeko pabilioiak eraisteko sinadurak batzen ari dira. Pentsatzen dugu, oraingo honetan ere, ez dituztela eskaera horiek aintzat hartuko. | Ahora han procedido a recoger firmas para que los pabellones de Errekagane sean derribados. Imaginamos que sus peticiones volverán a caer en saco roto. |
| Errekaganeko zonan ibaia guztiz estali edo ez, pabilioi lotsagarri horiek auzoaren irudia kaltetu besterik ez dute egiten eta, beraz, bizilagunek eskatzen duten bezala, pabilioiak eraitsi egin behar dira. | Se cubra o no se cubra la totalidad del río en la zona de Errekagane la presencia de esos indecentes pabellones, no hace sino deteriorar la imagen del barrio y por lo tanto y tal y como piden los vecinos estos pabellones debe ser derribados. |
| Horregatik, honako ERABAKI-PROPOSAMENA aurkezten diogu Udaleko Osoko Bilkurari: | Es por lo que presentamos la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO al Pleno Municipal: |
| LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Errekaganeko pabilioiak eraitsi beharra dagoela onartzen du. | PRIMERO.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo aprueba la necesidad del derribo de los pabellones de Errekagane. |

BIGARRENA.- Udalaren komunikabideetan mozio honen berri ematea.

Gobernu Taldeak hanka sartu duela errepikatzen du eta pabiloien aurri-egoera gero eta handiagoa da eta pabiloi horiek hor egoteak Gobela Ibaiko lanak egikaritzea eragozten dute. Udalak antolamenduz kanpoko hainbat eraikin baliabide publikoekin mantentzea onartzen du, nahiz eta berak hori legezkoa denari buruz zalantzak izan. Errekaganeko kasua beste elkarte batzuentzako jarduteko aurrekari bilaka daitekeela uste du. Bizilagunen mesederako pabiloi horiek eraitsi egin behar direla azpimarratzen du.

Luis Almansa jaunaren ustez, mozioan adierazten denaren arabera, ezin da eraikin bat eraistea planteatu itxura lotsagarria duelako eta PSE-EE taldearen ildo bereko mozioaren berri zutelako aurkeztu dutela deritzo.

Maitane Nerekan andreak adierazten du bi mozio desberdin egoteak harritu egin zuela. Mozioaren atzean obrengatiko interesik ez dagoela uste du eta aitortzen du balitekeela pabiloiak mantentzea gustatu ez zaien auzotarrak egotea eta, baita, horietan gauzatzen den gaztetxe proiektua gustuko ez dutenak ere; aldiz, beste askok proiektua babesten dute eta, hain zuzen, plataforma bat sortu zuten horri beren babesa emateko eta gauzatuko ziren obrak ere defendatzen zituzten. Zentzu horretan, kultur elkarteekin eta taldeekin batera, Gazteria Arloko teknikaria ere proiektuaren alde jarri zen. Horrek asko harritu zuen, gaztetxeekiko EAJ-PNV taldearen ohiko jarreran aldaketa adierazten baitu. Badaki Alderdi Popularra gazteek denbora librea autokudeatzeko moduen aldekoa ez dela, gauzen eta pertsonen gaineko erabateko

SEGUNDO.- Que se informe de esta moción en los medios de comunicación municipales.

Insiste en que el Equipo de Gobierno ha cometido un error y el estado de ruina es cada vez mayor y la existencia de los pabellones molesta la ejecución de los trabajos en el río Gobela. El Ayuntamiento consiente que unos edificos fuera de ordenación se mantengan con recursos públicos, lo cual le parece de dudosa legalidad. Cree que el caso de Errekagane puede ser un precedente para el actuar de otras asociaciones. Insiste en que los pabellones deben de ser derribados para beneficio de los vecinos.

Luis Almansa opina que no pueden plantear un derribo de un edificio porque sea indecente, tal y como indica la moción, y estima que la han presentado porque conocían la moción del PSE-EE en el mismo sentido.

Maitane Nerekan manifiesta que le sorprendió la existencia de dos mociones diferentes. Cree que detrás de la moción no hay unos intereses por las obras y reconocen que puede haber vecinos a los que no les agrade el mantenimiento de los pabellones como no les agradaba el proyecto del Gaztetxe que se desarrolla en los mismos, pero otros muchos sí apoyan dicho proyecto y de hecho crearon una plataforma de apoyo al mismo a la vez que también defendían las obras a realizar. En este sentido, a favor del proyecto además de asociaciones y grupos culturales se posicionó también el técnico municipal de Juventud lo que le sorprendió ya que supone un cambio en la posición habitual del PNV en relación a los Gaztetxes. Conoce que el Partido Popular no es partidario de formas autogestionadas del tiempo libre por parte de la juventud ya

kontrola defendatzen baitu. PP-ri pabiloiek Gobelako obrak zailtzen dituztela esanez egindako adierazpenak teknikoki justifikatzeko eskatzen dio. Pabiloiak mantentzea defendatuko dutela eta etorkizun batean txukundu egin beharko direla adieraziz amaitzen du.

que defiende el control absoluto sobre las cosas y personas. Pide al PP que justifique técnicamente las manifestaciones que realiza a cerca de que los pabellones dificultan las obras en Gobela. Finaliza indicando que van a defender el mantenimiento de los pabellones y que en un futuro deberán adecentarse.

Iñaki Gamero jaunak adierazten du PP-k urteak daramatzala eraikin horiek eraisteko planteatzen eta Talde Sozialistari 2012an pabiloi horiek eraiteko giltzarria bere eskuetan izan zuela gogorarazten dio, baina 2012ko urtarrilean Uholdeen Batzordeak pabiloi horiei zutik eusteko aukera egin zuen. Eztabaida hori Gobernu Taldearekin dagoela uste du, izan ere, pabiloiek obrei eragiten diete eta URAren txostenean bertan ere, eraikin horiek mantentzea oso arriskutsua dela jasotzen da eta, gainera, horien mantentzea ezin da bermatu.

Iñaki Gamero manifiesta que el PP lleva años planteando el derribo de esas edificaciones y recuerda al Grupo Socialista que tuvo en su mano el derribo de esos pabellones pero en enero de 2012 la Comisión de Inundaciones optó por la opción de mantener los mismos. Cree que el debate está con el Equipo de Gobierno ya que los pabellones afectan a las obras y el propio informe de URA recoge que el mantener esos edificios supone un grave peligro y además que no se puede asegurar su mantenimiento.

Luis Almansa jaunak erantzuten du Talde Sozialistak Errekaganeko eraikinak mantentzeko mozioari ez ziola babesik eman eta mozioak argudiatzen duen gisan eraikinak itxura lotsagarria dutelako soilik ezin direla eraitsi azpimarratzen du, are gehiago, Udalaren jabetzakoak ez direnean.

Luis Almansa replica que el Grupo Socialista no apoyó la moción del mantenimiento de los edificios de Errekagane e insiste que no se pueden derribar edificios porque sean indecentes como argumenta la moción y más aún cuando no son de propiedad municipal.

Iñaki Gamero jaunak erantzuten du ez duela esan egoera lotsagarrian daudelako soilik eraitsi behar direnik, baizik eta, jada azaldu dituen beste arrazoi batzuengatik. Eztabaida Gobernu Taldean eta BILDU-rekin pabiloiak mantentzeko duen itunean oinarritzen dela azpimarratzen du.

Iñaki Gamero replica que no ha dicho que solo los quieran derribar por su situación indecente sino por otras razones que ya ha explicado. Insiste en que el debate es con el Equipo de Gobierno y con el pacto que tiene con BILDU de mantener esos pabellones.

Maitane Nerekan andreak adierazten du BILDU-k ez duela pabiloi horiek mantentzeko ahalmenik, ez eta, EAJ-PNV taldearekin inolako itunik ere; dagoen itun bakarra EAJ-PNV taldeak elementu horiek erabiltzen zituzten gazteekin duena dela.

Maitane Nerekan manifiesta que BILDU no tiene poder para mantener los pabellones y que no tiene ningún acuerdo con el PNV, y que el acuerdo que existe es del PNV con los jóvenes que usaban esos elementos.

Mozioa bozkatu egiten da eta ez da onartzen, izan ere, emaitza aldeko 11 boto (PP eta PSE-EE) eta aurkako 12 boto, (EAJ-PNV, BILDU).

Sometida la moción a votación, es rechazada al obtener 11 votos a favor: PP, PSE-EE, 12 votos en contra PNV, BILDU.

Joseba Arregi jaunak adierazten du Gobernu Taldeak bere irizpidea aurrerago azalduko duela, Talde Sozialistak aurkeztutako mozioan.

Joseba Arregi manifiesta que explicará el criterio del Equipo de Gobierno en la moción presentada mas adelante por el Grupo Socialista.

**14.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GOBELA IBAIA BIDERATZEKO PLANA.**

**14.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ EL PLAN DE ENCAUZAMIENTO DEL RÍO GOBELA.**

Arantza Gutierrez andreak mozioa irakurtzen du. Mozio hau URA-k eman berri duen prentsaurreko batean Fadurako obrekin bere jarduerak amaitutzat ematen dituela esan duelako aurkezten da. Adierazpen horiek izutu egin ditu bai BILDU taldea eta bai auzotarrak, Gobela Ibaiari buruzko jarduera-proiektu osoa osatzea beharrezkoa dela uste baitute.

Arantza Gutiérrez da lectura a la moción. Manifiesta que la moción la han presentado porque en una reciente rueda de prensa por parte de URA se indicaba que con las obras de Fadura se daba por finalizado sus actuaciones, lo que ha preocupado tanto a BILDU como a los vecinos ya que estiman necesario completar todo el proyecto de actuacones sobre el río Gobela.

Luis Almansa jaunak mozioa egokia iruditzen zaiola adierazten du, proiektuaren hedadura osoa gogoan hartzea garrantzitsua dela uste baitu.

Luis Almansa indica que considera oportuna la moción ya que considera que es importante no olvidar la total extensión del proyecto.

Iñaki Gamero jaunak BILDU taldeari arrazoia ematen dio mozioan Uholdeen Batzorde Bereziaren lan egiteko modua ez dela errespetatu esatean eta, bere ustez, talde guztiak bat datoz proiektu osoa egikaritzearekin, nahiz eta Alderdi Popularra proiektuaren alderdi batzuekin kritikoa izan, esaterako, Errekagane inguruan ibaia ez estaltzearekin edo pabiloiak ez eraistearekin. Hala eta guztiz ere, proiektu osoa egikaritzea defendatzen du. Ildo horretatik, beste hainbat forotan ere egin dute lan, hala nola, Eusko

Iñaki Gamero reconoce la razón a BILDU cuando indica en la moción que no se ha respetado la forma de trabajar de la Comsión especial de Inundaciones y cree que todos los grupos están de acuerdo en que se realice todo el proyecto aunque en algunos aspectos el Partido Popular es crítico como la no cubrición del río en Errekagane o el derribo de los pabellones, pero aún así defiende la realización de todo el proyecto. En este sentido han trabajado en otros foros como en el Parlamento Vasco consiguiendo

Legebiltzarrean, aurrekontu-kontsignazioak lortuz. Proiektuarekin bat ez datozen alderdietan berresten direla adieraziz amaitzen du.

Joseba Arregi jaunak adierazten du Gobernu Taldeak mozioari bere babesa emango diola, planteatutakoa konpartitzen baitute. Ohiko praktika ez dutela apurtu deritzo, prentsaurrekoa URA-k deitu baitzuen. Osoko Bilkuraren gehiengo handi batek eta elkarteek proiektuari beren babesa eman diete eta hori erabakigarria izan da.

Arantza Gutierrez andreak Uholdeen Batzordean gaia patxadaz eztabaidatzeko aukera izatea itxaro du eta guztiei proiektuaren osotasunaren alde adierazitako babesa eskertzen die. Urtarrileko prentsaurrekoaz kexatzen da, egiteko modua haustea eragin baitzuen; hutsegitea izan da eta, gainera, auzotarren artean ziurgabetasuna eragin du, beharrezko obra bat iragartzeaz gain.

Mozioa bozkatu eta onartu egiten da EAJ-PNV, BILDU eta PSE-EE taldeen aldeko 14 boto eta PP taldearen 9 abstentzio-boto lortzean.

Ondorioz, gehiengoz, honako mozio hau onartzen da:

2008ko maiatzaren 31n Getxon uriolek kalte handiak eragin zituzten. Kalte horien artean azpimarratzekoak dira 51 familiak beren etxeetan jasotakoak. Diruz ordaindu ezin diren ondasunak galtzeaz gain, familia horiek erreforma- lanak egin behar izan zituzten, baita hilabete batzuetan etxetik kanpo bizi ere. Egoera tamalgarri horretan egonda ere, auzotar horiek arduratsu agertu ziren eta Udal honetako ordezkari politikoekin batera, arazoari aurre egin zioten Uholde Batzordean.

consignaciones presupuestarias. Finaliza manifestando que se ratifican en aquellos aspectos que no está de acuerdo con el proyecto.

Joseba Arregi indica que el Equipo de Gobierno apoyará la moción ya que lo que se plantea lo comparten. Estima que no han roto la práctia habitual ya que la rueda de prensa la convoco URA. Opina que la gran mayoría del Pleno junto con asociaciones han dado su apoyo al proyecto y eso ha sido determinante.

Arantza Gutiérrez manifiesta que espera que en la Comisión de Inundaciones se podrá debatir con calma el tema y agradece a todos el apoyo a la totalidad del proyecto. Lamenta la rueda de prensa de enero que fue romper una forma de hacer y una torpeza y que además creo incertidumbre a la vez que anunciaba una obra necesaria.

Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 14 votos a favor: PNV, BILDU, PSE-EE, 9 abstenciones PP.

En consecuencia, es aprobada por mayoría la siguiente moción:

Las inundaciones del 31 de mayo de 2008 produjeron graves daños en Getxo. Entre estos daños destacan los soportados por 51 familias en sus viviendas. Además de la pérdida de bienes que no se pueden pagar con dinero, estás familias tuvieron que realizar obras de reforma e, incluso, vivir durante algunos meses fuera de sus hogares. Pese a estar en esta lamentable situación, estos vecinos y vecinas se mostraron solícitos y, junto con los responsables políticos de este municipio, afrontaron el problema en la Comisión de

Inundaciones.

Uholde batzorde horretan, urteetan kajoietan egondako Gobela bideratzeko plana aztertu eta onartu zen. Aliviadero Valdés deiturikotik Mimenagaraino. Proiektu hori aho batez onartu zen ez Uholde Batzordean soilik, Udalbatza honetan ere bai.

En esta Comisión de Inundaciones se estudió y aprobó un plan para canalizar el Gobela que había permanecido durante años en los cajones. Desde el llamado Aliviadero Valdés hasta Mimenaga. Este proyecto se aprobó unánimemente, no só en la Comisión de Inundaciones, sino también en esta Corporación Municipal.

Lehengo fase batean, premiazko lan batzuk egin ziren Salsidu zubian eta Negurin. Ondoren, Errekaganeko lanak etorri dira, bi fasetan. Premiazkoak ikusi ziren, ordea, aurreikusita ez ziren lan batzuk Fadura inguruan... Orain, berriz, prentsatik jakin izan dugu auzotarren eskaera honi erantzuna emanez, laster gauzatuko direla obra hauek ere. Albiste pozgarria, dudarik gabe, getxoztar guztiontzako, eta bereziki lehenengo pertsonan uriolak sufritu zutenentzako.
Baina horiek ere prentsatik jakin izan dute, tamalez, eta aho batez Udalbatza honek hartutako erabakiaren aurka, horretan amaituko direla lanak eta ez direla egingo Salsidu zubitik, ur gora, Mimenagarainoko tartean aurreikusitako lanak.

En una primera fase se realizaron algunos trabajos urgentes en el puente Salsidu y en Neguri. Posteriormente, han venido las obras de Errekagane, en dos fases. Se vieron urgentes, en cambio, algunas obras que no habían sido previstas en el entorno de Fadura… Ahora, sin embargo, hemos sabido por la prensa que, dando respuesta a la solicitud de la ciudadanía, pronto se llevarán a cabo también estas obras. Una noticia agradable, sin duda alguna, para todos y todas las getxotarras, y especialmente para quienes sufrieron las riadas en primera persona. Pero ellos y ellas también han sabido por la prensa, desgraciadamente, y en contra de la decisión tomada de manera unánime por esta Corporación, que en esto acabarán las obras y que no se harán las obras previstas en el tramo desde el puente Salsidu, agua arriba, hasta Mimenaga.

Errekaganen eta Faduran egin beharreko lanak uholdeak ekiditeko ahaleginetan funtsezkoak diren zalantzan jarri gabe, zalantza eta kezka asko eragin ditu Uholde batzordetik kanpo egindako iragarki honek, bereziki Salsidu-Zubieta auzoan kalteatutako hogeitabi familiengan, baita bertako gainerako auzotarrengan ere. Uholde Batzordean, auzo horretan aurreikusitako lan hidraulikoak egingo diren ala ez argitzea espero dugun arren, honako puntu hauek onartzea eskatzen diogu Udalbatza honi:

Sin poner en duda que las obras que han tenido que hacerse en Errekagane y Fadura son fundamentales para el propósito de evitar las inundaciones, ha provocado numerosas dudas y quejas este anuncio hecho al margen de la Comisión de Inundaciones, especialmente en las veintidós familias damnificadas en el barrio Salsidu-Zubieta, pero también en el resto del vecindario. Si bien esperamos que en la Comisión de Inundaciones se aclare si se van a realizar o no las obras hidráulicas previstas en este barrio,

solicitamos a este pleno que se admitan los siguientes puntos:

1. Gobela ibaia bideratzeko plana, aho batez onartu zen bezala, bere osotasunean burutzeko nahia eta beharra berresten du Udalbatzak, hasieran aurreikusita ez ziren hobekuntzak kontuan hartuta.

1. La Corporación Municipal ratifica la voluntad y la necesidad de llevar a cabo en su totalidad el plan para encauzar el río Gobela, tal como se admitió unánimemente, teniendo en cuenta las mejoras que en un primer momento no fueron previstas.

2. Ondorioz, Faduran egin beharreko lanen ondoren, Salsidu zubitik ur gora Mimenagaraino doan ibilguan aurreikusitako eta hasierako proiektuan jasotako hobekuntza hidraulikoak bostgarren fase batean egiteko eskaera egiten dio URA ur agentziari.

2. Como consecuencia, con posterioridad a las obras que es necesario hacer en Fadura, se hace la solicitud a la agencia del agua URA para que realice en un quinta fase las mejoras hidráulicas recogidas en el proyecto inicial en el cauce que va desde el puente Salsidu, agua arriba, hasta Mimegana.

3. Erabaki hau Uholde Batzordean auzotarrei ezagunaraziko zaie.

3. Esta decisión será dada a conocer a la ciudadanía en la Comisión de las Inundaciones.

Iñaki Gamero jaunak Bilkura-Gelatik irteten du.

Iñaki Gamero se ausenta del Salón de Sesiones.

**15.- GETXO-BILDU ETA PSE-EE ALDERDIETAKO UDAL TALDE POLITIKOEK BATERA AURKEZTUTAKO MOZIOA: ABORTUA KODE PENALETIK ATERATZEKO: EMAKUMEEK ERABAKITZEKO ESKUBIDEA BERMATZEN DUEN LEGE BATENGATIK.**

**15.- MOCIÓN CONJUNTA DE LOS GRUPOS MUNICIPALES BILDU Y PSE-EE S/ POR LA DESPENALIZACIÓN DEL ABORTO: POR UNA LEY QUE GARANTICE EL DERECHO DE LAS MUJERES A DECIDIR.**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzen du; honela dio:

Maitane Nerekan da lectura a la moción que indica lo siguiente:

Algortako Bilgune Feminista, Itzubaltzetako Emakume Asanblada eta Mujeres con Voz elkarteen mozioa, Bildu eta PSE taldeek Getxoko Osoko Bilkurara

Moción de Algortako Bilgune Feminista, Itzubaltzetako Emakume Asanblada y Mujeres con Voz que presentan al Pleno de Getxo los grupos PSE y Bildu:

aurkezten dutena:

ARRAZOIAK:

Egungo "Sexu- eta Ugalketa- Osasun eta Haurdunaldia Borondatez Etetearen Legea" (HBE), 2010ean onarturikoa, aldatzeari buruzko berriak direla eta ,eztabaida handia sortu da jendartean; era berean, aldaketa proposamen honek mugimendu feministaren erabateko gutxiespena bultzatu du.

Lege berriaren arabera 1985eko eredua (diktadura ostean onartu zuten abortuari buruzko lehen legea) baino atzeragoko egoerara itzuliko ginateke eta hori zuzen-zuzeneko erasoa da emakumeen eskubideen kontra.

Gaur egungo legeak ez ditu inolaz ere gure eskubideak bermatzen, zeinak abortu askea baimentzen duen 14 asteren buruan egiten bada - beti ere, hiru eguneko hausnarraldia ostean -; halaber, oso urrun dago emakumeen gehiengoak borrokatzen ditugun helburuetatik: hau da, abortu askea, ziurra eta doakoa gizarte segurantza sistemaren barruan edozein emakumerentzat, hain justu, jatorriak jatorri, klase sozialak klase sozial etab. Gogorarazi behar da, egun, eskubide hori ez dela eskubide etorkin eta papergabe diren emakumeentzat, zeintzuk ez baitute sarbiderik osasun-publikora, arean ere, azken urteetan egindako murrizketen ondorioz.

Kontuan izan behar dugu, gaur-gaurko abortatzeko eskubideari buruzko gogoeta hori ez dela kasualitate hutsa. Izan ere, horren atzean eraso ideologiko, erreakzionario eta dogmatiko latza dago, zeinaren bidez ezartzen den, horrenbestez, zein izan behar den familia-eredua eta emakumeen rola bere baitan. Egun, zerbitzu publikoetan gauzaturiko

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El anuncio de la modificación de la actual "Ley de Salud Sexual y Reproductiva y de la Interrupción Voluntaria del Embarazo"- aprobada en 2010- está generando un gran debate a nivel social y un amplio rechazo en todo el movimiento feminista.

La nueva ley pretende volver a un modelo más atrasado que el de 1985 -la primera ley del aborto aprobada después de la dictadura- y supone un ataque frontal hacia los derechos básicos de las mujeres.

La actual legislación que permite el aborto libre hasta las 14 semanas (tras un periodo de reflexión de tres días, eso sí), tampoco tutela nuestros derechos porque no garantiza un aborto libre, seguro y gratuito por la seguridad social para todas las mujeres, independientemente de su origen o clase social. Hay que recordar que este derecho hoy en día no se extiende a las mujeres inmigrantes sin papeles que no tienen acceso a la sanidad pública tras los recortes de los últimos años.

Tenemos que tener en cuenta que el actual cuestionamiento del derecho al aborto no es casual. Detrás, subyace una ofensiva ideológica dogmática y reaccionaria, que establece cuál tiene que ser el modelo de familia y el rol de las mujeres en ella. Con los actuales recortes en los servicios públicos, las pocas tareas que el Estado estaba cubriendo en materia de cuidados y

murrizketak direla eta , preseski, zaintza edota ugalketa lanetan orain arte Estatuak babestutako gutxia, bazterreratua izan da. Ondorioz, lan horren zama emakumeek hartu dute euren bizkar gainean (eta hartuko dute). Bada, andreek dute betebeharra Estatuaren disfuntzio hori euren gain hartzeko. Berebat, abortatzeko eskubideari buruz berriro gogoeta egitea da ostera ere hartzea aginduak, zeintzuk arautuko liguketen zein rol izango zatekeen "ama gisa" bete beharko genukeena; horrez gain, gogoeta horrek lekarke indartzea emakumeen "zeregin nagusia" jendarte honetan: hots, familia heterosexualean ugaltzearena.

reproducción se están dejando de lado. Este peso está recayendo, y va a recaer, principalmente sobre las mujeres, que tienen el "deber" de suplir estas disfunciones del Estado. Volver a cuestionar el derecho al aborto es también, reasignar nuevamente el rol de "madre", y fortalecer el ideario que determina el papel de las mujeres y su "destino principal" en la sociedad: la reproducción dentro del modelo de familia heterosexual.

Orain arte abortatzea modu oso ezberdinetan gauzatu dela ikusi badugu ere, etorkizunean, ezarri nahi dituzten neurriak direla medio, bestelakotasunak areagotuko dira. Halatan, era ziurrean abortatu ahal izango dutenak hauek izango dira: eskubide hori profitatzeko baliabide ekonomiko nahikoak dituzten emakumeak, zeintzuk joango baitira horren lege zurruna ez duten herrialdeetara. Krisi izenez batailatu duten iruzur horri esker, aldiz, gero eta emakume gutxiagok izango dugu aukera horri eusteko modua. Errekurtso ekonomiko gutxiko emakume langileentzat eta ikasle direnentzat, hortaz, zailtasun handiagoak egongo dira. Zio hori dela eta, klandestinitatean abortatzera jo beharko dute, baldintza ezegokietan are gehiago, beraien bizitzak arriskupean jartzeko kaltebide larria izango dute. Gainera, 18 urte baino gutxiago duten emakumeek gurasoen baimenik gabe ezin izango dute abortatu; zeina guztiz harritzekoa baita, preseski, Estatu Espainolean ezkondu ahal izateko gutxieneko adin legala 16 urtekoa baita, eta, orobat, 13 urtetik haratagoko nerabeek harreman sexualak izan baititzazkete (legearen ikuspuntutik).

Si hasta ahora hemos visto que el acceso al aborto se vive de forma desigual, con las medidas que quieren imponer esta desigualdad va a aumentar. Solo podrán abortar, de manera segura, las mujeres que tengan los suficientes recursos económicos para desplazarse a otro país donde la ley no sea tan restrictiva. Con la actual estafa, también llamada crisis, serán cada vez más las mujeres con difícil acceso a esta opción. Para las mujeres trabajadoras y estudiantes con menores recursos económicos, habrá mayores dificultades, y muchas se verán abocadas a abortar en la clandestinidad bajo condiciones inadecuadas, incluso poniendo en riesgo su vida. Además, las menores de 18 años no podrán abortar sin el consentimiento paterno o materno. Curioso, cuando por ejemplo en el Estado español la edad legal para casarse es 16 años (aumentada recientemente), o 13 para mantener relaciones sexuales.

Alabadere, jakiteko dago zeintzuk izango diren ondorio penalak era ilegalean abortatzera derrigortutako emakumeentzat, ezen, Justizia Ministerioak oraindik ez du horri buruz ezer esan.

También habrá que ver cuáles serán las consecuencias penales para aquellas mujeres que se vean obligadas a abortar de forma ilegal, para lo cual el Ministro de Justicia aún no ha declarado nada concreto.

MOZIOA

MOCIÓN

Uste dugu haurdunaldia borondatez etetea zilegitasun, ziurtasun eta legezko egoeran gauzatu behar dela; halaber, Administrazioak hartu behar du beharrezkoa gerta daitekeen neurri oro, preseski, emakumeek hartutako erabakia burutu dadin. Hori guztia dela eta, izan ere, gure eskubidea delako honakoa exijitzen dugu:

Consideramos que la interrupción voluntaria del embarazo se tiene que realizar en condiciones seguras, adoptando las Administraciones las medidas necesarias para que la decisión de la mujer pueda hacerse efectiva. Por todo ello exigimos:

1. Legegintza aldaketa non abortua ez baita izango delitu eta, beraz, Kode Zibilean arautua; berebat, zeinak erregulatuko duen emakumeen eskubidea, alde batetik, haurdunaldia borondatez eteteko eta, bestetik, erabakitzeko euren amatasunari buruz.

1. Un cambio legislativo en el que el aborto deje de estar tipificado como delito y por tanto regulado en el Código Penal, y pase a estar regulado como el derecho de las mujeres a decidir sobre su maternidad, interrumpiendo voluntariamente su embarazo cuando lo deseen.

2. Lege bat onartzeko eta bermatzeko emakumeen ugaltzeko autonomiarako eskubidea, hain justu, zeinagatik norbanakoaren ebazpena izango baita haurdunaldia eteteko erabakia hartzeko zergati soila . Berdinki, zeinagatik eskura izango diren eskubide hori modu eraginkor eta ziurrean gauzatzeko beharrezko tresnak.

2. Una ley que reconozca y garantice el derecho a la autonomía de las mujeres, estableciendo su decisión personal como causa exclusiva para la interrupción de su embarazo, y que disponga los mecanismos necesarios que permitan el ejercicio de estos derechos de manera efectiva y segura.

3. Aipaturiko eskubide horren aitorpen zehatz eta argia; zeinaren praktika ezin den baldintzatu ezta oztopatu ere: hain zuzen ere, hirugarren pertsonek egindako epaiketa edota balorazio moralengatik ala ez dagoelako osasun publikoko sarean beharrezko zerbitzurik.

3. El reconocimiento preciso y claro de este derecho, de forma que su práctica no se vea condicionada ni obstaculizada por la valoración y los juicios morales de terceras personas o por la ausencia de servicios en la red sanitaria pública.

4. Abortua osasun-zerbitzu normalizatua izan dadila osasun publikoko sare

4. Que el aborto sea una prestación sanitaria normalizada dentro de la red

barnean; hain justu, emakume ororentzat, bertako zein etorritakoentzat eta euren egoera administratiboa edozein izanda ere. Orobat, kontzientzia-eragozpena arautu dadila bermatzeko emakumeen abortatzeko eskubidea gune publiko guztietan.

